


Aktak, grabazioak eta beste dokumentu batzuk, gure bermea. Bidu alkatetzan dagoela urte bete eskaz pasatu ondoren, Apirilean idatzi bat banandu gendun udaletxean zer gertatzen dan jakinarazteko. Orain dala egun batzuk, San Pedroko jaieten Bilduk herriko aldizkariaren 2. alea bandandu eban, eta bertan guk idatzitako adierazpenei erantzuna emongo deusiela adierazten eban, eta besteak beste funtzik gabeko informazioa ematea leporatu euskuen.

Aldizkariaren erantzun guztiak ildo beretik doazenez (euren erara moldatuta), **Garbitu enpresako produktuen salmenta** adibidetzat jarriko dogu. **Honetarako Bilduk gaiari buruz erantzundako testua bere osotasunean kopiatuko dogu**, eta normala dan legez, fakturak aurkeztuko doguz San Pedro ostekoak baita, 2016 urtekoak.

Bilduk baieztatzen eban:” Egi erdiak (batez be kalte egiteko pentsatuak), gezurrak baino txarragoak izanten dira ia beti. EAJk esaten duenean alkateordeak udalari produktuak “legegintzaldi hazieratik” saltzen deutsozala, suposatzen dogu San Pedro jaietan erosotasuna eta berehalakotasuna bermatzeko egindako eskariari buruz dabilela. Izan be, ekainaren 13ko kargu-hartzearen ostean eta jaietarako aste bi falta zirela, alkate ohiari jaietarako zeozer prestatuta eukien ala ez galdetzerakoan, berak honakoa erantzun euskun:” Ez dogu ezer egin, hauteskundeak irabazi doguzan ala ez jakin arte, badaezpada..”. Egoera horretan, ulertzekoa da gure esku zegozan baliabideak erabiltzea eta produktu horiek erostea jai patxadazkoak egin ahal izateko, derrigorrez. Dana dala, EAJk dinon moduan, alkateak onartu eban egoera horrek txarto ulertuak sortu leikazala. Baina, EAJk ez dinona da, eurek galdera planteatu orduko (2016ko martxoaren 22ko plenoan izan zan eta oposizioko zinegotzi guztiak conforme gelditu ziren azalpenagaz) udal gobernuak aspaldi eta aho batez erabaki ebala empresa horrerri ezer gehiago ez eskatzea.”Erein gezurra eta zerbait beti geldituko da”teknika ez jaku aproposa ereizten oposizioa egiteko. Politikan, eta gitxiago Arantzazu lango herri txiki batean, “edozein gauzak” ez dau balio.




GARBITU
PHOTOLITHO DE IMPRESA INDUSTRIAL
 Poligono Martiartu
 Nave 31 33
 48140 Arantzazuko BIZKAIA

Tel: 94 671 48 48
 Fax: 94 671 57 03
 Email: eskala@garbitu.net

Arantzazuko udala

Zelata 1
 48140 ARANTZAZU
 BIZKAIA



GARBITU
PHOTOLITHO DE IMPRESA INDUSTRIAL
 Poligono Martiartu
 Nave 31 33
 48140 Arantzazuko BIZKAIA

Tel: 94 671 48 48
 Fax: 94 671 57 03
 Email: eskala@garbitu.net

Arantzazuko udala

Zelata 1
 48140 ARANTZAZU
 BIZKAIA

FECHA DATA	Nº FACTURA FACTURA ZBK.	CÓDIGO CLIENTE BEZERO KODEA	TFNO. CLIENTE BEZEROAREN TFNOA	D.N.I./C.I.F. N.A.N./I.F.K.	Forma de Pago: contado
01/09/15	1504027	4300000174		P48007001	Vto: 30/09/15

SUMA IMPORTES ZENB. GUZTIRA	DESCUENTO/DESCONTUA % Zentzuetan	BASE IMP. ZERGA ONARRIA	I.V.A./B.E.Z.a % Zentzuetan	TOTAL FACTURA FACTURA GUZTIZKOA
509.06		509.06	21.00	615.96

FECHA DATA	Nº FACTURA FACTURA ZBK.	CÓDIGO CLIENTE BEZERO KODEA	TFNO. CLIENTE BEZEROAREN TFNOA	D.N.I./C.I.F. N.A.N./I.F.K.	Forma de Pago: Transferencia
8/01/16	1600301	4300000174		P48007001	Vto: 18/01/16

SUMA IMPORTES ZENB. GUZTIRA	DESCUENTO/DESCONTUA % Zentzuetan	BASE IMP. ZERGA ONARRIA	I.V.A./B.E.Z.a % Zentzuetan	TOTAL FACTURA FACTURA GUZTIZKOA
188.65		188.65	21.00	228.27

Hauxe da Arantzazuko gobernuaren islada. Hor dagoz frogak, egindakoa onartu eta aurrera egin beharrean herriko aldizkaria erabiltzen dabe gai honen inguruan ekiteko, egindakoa inolako justifikaziorik ez daukala jakinda. Lotsagarria.

JAIK: jaiak herritik eta herriarentzat, agintean nor dagoen kontuan euki barik.

Jai batzordea: EAJ 2015 urteko San Pedro jaietako batzarretara aurkeztu zan batzordeko parte zalakoan, baina EAJ-ren proposamenari batzarrean erantzuna emon beharrean, pentsatu eta aurrerago erantzungo ebela esan jakun. 2015eko Irailako bilkuran jakin gendun udalak egindako jaietarako paineluen salmenta eta gazteen txosnako edarien ordainketaren inguruan.

Jai batzordetan egon giñen orduan? Beraz, hurrengo jai batzordeetan parte ez hartzea justifikatuta dago.